



HERRIKO KONTSEILUKO BILKURA AGIRIA

Donamartiriko Herriko Kontseilua martxoaren 31 an bildu da, 20:30 tan, Antton LARRABURU jaun auzapezaren lehendakaritzapean.

Hor zirenak : POCHELU Bernadette, ARMENDARIZ Alain, MIRANDE Mathias, HARISMENDY Emmanuelle, LADEUIX Jean-Pierre, POCHELU Didier, MINONDO Mirentxu, BORDARRAMPE Xalbat, CHABAGNO Inès.

Hor ez zirenak : APHECETCHE Alain

Bilkurako idazkaria : POCHELU Bernadette.

Bilkuraren hastapena : 20:30

Gai zerrenda

- 2014ko Kontu Administratiboaren bozkatzea
- 2014ko Kudeaketa kontuaren bozkatzea
- 2015ko hastapeneko aurrekontuaren bozkatzea.
- Aisialdi zentro proiektua
- Gai ezberdinak

2014 ko KA-ren bozkatzea

➤ HERRIA

	2014ko GASTUAK	2014ko DIRU SARTZEAK
FUNTZIONAMENDUA	167 386.59 €	428 941. 71 €
INBESTIMENDUAK	169 907.81€	163 909. 54 €

➤ CCAS

	2014ko GASTUAK	2014ko DIRU SARTZEAK
FUNTZIONAMENDUA	1306.13 €	/
INBESTIMENDUAK	/	/

➤ Etxe multzoa

	2014ko GASTUAK	2014ko DIRU SARTZEAK
FUNTZIONAMENDUA	293 622.91 €	293 622. 91 €
INBESTIMENDUAK	206 629. 36 €	149 734.43€

Herriko, CCASeko eta Etxe multzoko Kontu Administratiboak aho batez adostuak izan dira.

Kudeaketa kontuaren bozkatzea

Herriko, CCASeko eta Etxe multzoko Kudeaketa kontuak aho batez adostuak izan dira.

2015 ko KA-ren bozkatzea

➤ HERRIA

	GASTUAK	DIRU SARTZEAK
FUNTZIONAMENDUA	479 319 €	479 319 €
INBESTIMENDUAK	359 733 €	359 733 €

➤ CCAS

	GASTUAK	DIRU SARTZEAK
FUNTZIONAMENDUA	1 500 €	1 500€
INBESTIMENDUAK	/	/

➤ Etxe multzoa

	GASTUAK	DIRU SARTZEAK
FUNTZIONAMENDUA	944 218. 78€	944 218. 78 €
INBESTIMENDUAK	856 960. 78€	856 960.78€

Herriko, CCASeko eta Etxe multzoko Aurrekontuak aho batez adostuak izan dira.

Aisialdi zentro proiektua

DONAMARTIRI, DONOZTIRI, IZTURITZE eta AIHERRAren arteko Aisialdi zentroaren irekitze proiektua gauzatzen ari da.

DONAMARTIRIko Herriko Kontseiluak aho batez adosten du IZTURITZE proiektuaren eramailea izaitea.

Gai ezberdinak

-Arberoako Uraren Sindikatuko estatutuen aldaketa :

Arberoako Uraren Sindikatuko Batzordeak bere estatutuen aldatzeko deliberoa hartu du, sindikatu anitza bilakatzeko. Herriko Kontseiluak aho batez adosten ditu Arberoako sindikatuaren estatutuak.

- Behasi auzoko bidexken erregulartzeko inkesta publikoaren hestea :

Bi hilabete pasa dira inkesta publikoa ireki denetik, Herriko Kontseiluak aho batez erabakitzen du Behasi auzoko bidexken erregulartzea.

- Trinketearen kudeaketa :

Zerga biltzailearen gomendioen ondotik, Herriko Kontseiluak deliberatu du diru-sartzeen kutxaren kentzea, Trinketeko emaitzen kobratzeko.

-SIVU IKAS BIDEren eskumenen zabaltzea :

DONAMARTIRI eta DONOZTIRIKO hautetsien artean gogoeta bat eramana izan da SIVU IKAS BIDEren eskumenen zabaltzeko.

Herriko Kontseiluak aho batez eskola erritmoen eta eskolako langileen kudeaketaren eskumenak SIVUri pasatzera deliberatzen du.

-Cinétoiles :

Aurten ere Herriko Etxeak bere hautagaitza pausatuko du Cinétoiles gaualdian parte hartzeko.

- Osasun asurantza osagarria :

Osasun asurantza osagarrietan artekari batek bilkura publikoa eta permanentziak antolatuko ditu DONAMARTIRIKO biztanle guziendako.

Bilkuraren bukaera : 22:30